

ARCACHONGO AKORDIOA. Espainiako Arrantza eta Nekazaritza Ministerioak Jaurlearitza eman dio sektorearekin negoziatzeko ahalmena. Nekazaritza alorrean ere iritsi dituzte akordioak.

Lakuak hitzartuko du euskal sektoreak Arcachongo Akordioan izango duen jarrera

Arrantzaleekin elkarlanean aritzeko asmoa erakutsi du Saenz de Samaniegok



SERGIO BARRENETXEA / EFE

Eusko Jaurlearitzako Arrantza eta Nekazaritza ordezkariak, atzo, Madrilén Arias Cañeterekin egin bileran.

ERREAKZIOAK

«Baikor» Madrilek erakutsitako jarrerarekin

«Baikor» agertu ziren Gonzalo Saenz de Samaniego Jaurlearitzako Arrantza eta Nekazaritza sailburua eta Esteban Olaizola Gipuzkoako Kofradien Federazioko presidentea Madrilgo Gobernuak atzo erakutsitako jarrerarekin.

«Arrantzaleon hitza aintzat hartzeko asmoa dutela dirudi, eta hori hala baldin bada onuragarria izango da guretzat», azaldu zion Olaizolak EGUNKARIARI. Hala ere, zuhur agertu zen Gipuzkoako Kofradien Federazioko presidentea

eta «hitzak gauza bat eta ekintzak beste bat» direla oroitarazi zuen.

Espainiako Gobernuak erakutsitako «jarrera irekia» nabarmendu nahi izan zuen, berriz, Saenz de Samaniego sailburuak. «Hitz egiteko eta akordioak iristeko asmoarekin aritu da Espainiako Nekazaritza eta Arrantza Ministerioa eta argi gelditu da aldarte horretan arituz gero adostasuna iristea askoz errazagoa dela», esan zuen bileraren ostean.

Hemendik aurrera ere jarrera hori mantentzeko eskatu zion Saenz de Samaniegok Cañeteri, eta besteak beste, EAEko arrantzaleek Frantziaren esnea saltzeko baimena izan dezaten lan egiteko.

dago Arcachongo Akordioaren negoziazioa baina ados jartzeko aukera gutxi dago, Frantzia eta Kantauriko arrantzaleek jarrera oso kontrajarriak baitituzte.

Urte amaierarako ados jarri ezean, Espainiako eta Frantziako gobernuen esku geldituko da negoziazioa. Euskal arrantzaleen hitzetan, frantziarrek nahia-goto negoziazioa gobernuen esku uztea, eta ondorioz, ahalegin gutxi egingo dute hitzarmenara iristeko.

Horregatik hasi da Espainiako Gobernuak Arcachongo negoziazioetan erakutsi behar duen jarrera aztertzen, eta horregatik utzi du Jaurlearitzaren esku euskal sektorearekin hitz egitea.

Nekazaritza alorrean ere akordioak

Espainiako Arrantza eta Nekazaritza ministro Miguel Arias Cañeterekin bildu ostean eman zuen horren berri Saenz de Samaniegok. Bileran horretan nekazaritza alorreko akordiorik ere iritsi zuten Espainiako eta Jaurlearitzako ordezkariak. *Behi eroen* gaixotasuna dela-eta suntsitutako jakien ordainetan, besteak beste, Madrilek Lakuari zor dion dirua ordaintzeko konpromisoa hartu zuen Arias Cañetek. Orotara 3 milioi euro ordainduko dizkio Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlearitzari.

Finantzaketarako beste bi konbenio ere sinatu zituzten atzoko bileran. Batetik, Europako Batasunaren Nekazaritza Politika Bateratuaren informazio sistema finantzatzeko hitzarmena sinatu zuten.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko ureztapen proiektuetan elkarlanean aritzeko konpromisoa ere hartu zuten Madrilgo Gobernuak eta Jaurlearitzak. Ureztapen proiektuak planifikatzeko batera egingo dute lan.

ENPRESAK

Madrilen aburuz, Babcock Borsigek hartu konpromisoak indarrean daude

Erredakzioa | DONOSTIA

Babcock Borsig talde alemaniarrek iazko urrian Sestaoko Babcock Wilcox erosi zuenean hainbat konpromiso hartu zuen SEPI Partaidetza Industrialetako Estatu Sozietatearekin; horien artean Sestaoko lanpostuak mantendu eta bermatzea.

Aurreko astean taldeak ordainketak eten eta moldaketa plan bat abiarazi zuen. Plan horren arabera, taldeak egun dituen 21.000 lanpostuetatik 9.000 kolokan leudeke. Babcock Borsigek adierazia du Sestaoko lantegiko 650 lanpostuei eusteko asmoa duela.

Atzo Madrilgo gobernuak berretsi zuenez, Borsigek hasieratik hartutako konpromisoek «indarrean jarraitzen dute». Madrilen arabera, eroslearen aukeraketa egiteko orduan, orain urtebete, talde alemaniarren egoera «nabarmen hobetagoa» zen, eta hori frogatzeko, SEPIren aholkulari den Norgestion etxearen txostena ekarri zuen harira.

LAN ISTRIPUA

Bigarren mailako erredurak jasan dituzte hiru langilek, Nafarroan

Erredakzioa | IRUÑEA

Elikagaiak eta ontziratu-tako jakiak ekoizten dituen Productos Soldevilla enpresan atzo jazotako lan istripuan hiru langilek bigarren mailako erredurak jasan zituzten; bizkar eta gorputzeko goi adarretan. Garbiketa prozesuan zebilen lapiko baten estalkia ireki denean gertatu da. Corellan dago enpresa eta goizeko 09:55 aldera jaso zuen deia SOS Nafarroak.

Zaurituak 25 urteko M.M.M., 28 urteko R.B.M. eta F.J.N.L. 55 urtekoak izan ziren. Beharginek jasanako erredurak, hurrenez hurren: gorputzeko %30ean, %55 eta %40an izan ziren.

Estitxu Elduaen | DONOSTIA

Arcachongo Akordioaren negoziazioetan euskal sektorearen aldarrikapena zein izango den Eusko Jaurlearitzak erabakiko du, bere esku utzi baitu Es-

painiako Gobernuak eskumen hori.

Aldarrikapen hori erabakitzeko arrantzaleekin negoziatzeko asmoa erakutsi du Gonzalo Saenz de Samaniego EAEko Arrantza eta Nekazaritza sail-

buruak, «eurak izan behar baitute hitzarmen historiko horren jarraibideak ezarri behar dituztenak». Horregatik, datozen egunetan sektoreko ordezkariekin bilduko dela iragarri du.

Oraindik sektorearen esku